

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Itzulbiderik ez denean



Iratxe Retolaza

Literatura-itzultzaile baten ahotsa gorpuztu du Anjel Lertxundik *Horma* nobelan, hainbat bidegurutze bizi dituen: alzheimerri diagnostikatu diote amari, familiako sekretu batek kolpatzen du, Marta etxera bizitzera joan zaio eta eguneroko elkarbizitzak urradurak sortu ditu bikote-harremanean, ofizioaren prekarietateak ziurgabetasuna sortzen dio... Amaren gaixotasunak iraganeko mamuak biziberritu dizkio, eta amari mintzo zaio nobelan, esan gabekoei bide emateko. Hormatze-bidean ama, eta hormaturik ere Fidel, amaren memoria-galerak izoztu bailuen, ez aurrera, ez atzera, erabakimena urratuta. Itzulginguruka dabil, beldur dio korapiloak errotik heltzeari: porrotaren itzalak geldiarazten du. Ahots desesperatu eta konformagaitza gorpuzten du Fidelek.

Egunerokoari aurre egiteko ezintasun horretan, familiako sekretua argitzeko gogoa pizten zaio, jatorrietara edo sustraietara jotzeko premia bizi du. Jatorriarekiko temak originaltasunaren inguruko auziak harrotuko dizkio, sorkuntza literarioaren eremuan, itzulpen-lanaren testuinguruan, nortasun pertsonalari traza hartzean. "Memoriarik gabe ez dago originaltasunik" dio Fidelek. Ahots mindu horrek Anjel Lertxundiren hainbat nobelatan landuriko kezka jorratzen ditu: iraganaren zama, errudun-sentimenduak eta auzi moralak, isiltasunek sorturiko kateak, tradizioa berrasmatzea...


Larrimin horren erdian, izan badu ihesbiderik, babeslekurik: itzulpen-ofizioarekiko pasioa. Ihesbide horrek arrastoak utzi ditu nobelaren egiturari, etengabeak direlako jolas metalitera-

Horma

ANJEL LERTXUNDI

Erein, 2017

Anjel Lertxundi *Esna* idazlea
(Orio, 1948)



rioak, idazketa-prozesuaren inguruko hari-muturrak, edo itzulpen-jardunaren inguruko gogoe-tak. Literatur testuak eta itzulpen-ariketak dira Fidel letrajalearen komunikazio-iturri nagusia, eta komunikazio-bide horretan trebatu bada ere, trakestu egin da bestelako hitz-jardunean.

Nobela existentzialaren arrastoak ugari dira *Horma*-n: narrazioaren arnasan, protagonistaren kezka-motetan eta testuartekotasun literarioetan (besteak beste, Albert Camusen *Arrotza* dakar orriotara). Zentzu horretan, tentsio narratibo urriko nobela da, eta istorioak aurrera egin ahala, Fidelen marmarra errepikakorra egin zait zenbait pasartetan. Gertaeren kate ahul hori orekatzera datoz oihartzun literarioekin eginiko jolasak eta idazketa-ekintzaren inguruko hausnarketak. Literatur tradizioaren piezak aurkezten dizkigu, gaurkoturik, berri-turik, eta puzzlea osatzera gonbidatzen gaitu. Babesleku hori, kultur eredu hori ahanzturak irents ez dezan, memoria literario eta kulturala gal ez dezagun. ■